

Morroia

Ik. Mirabea.

Mortifikazioa

Ik. Hildura.

Moskea

Ik. Meskita.

Moteta

Eliz kanta laburra, *liturgiarako ezarritako testuetatik at, bereziki Bibliako hitzen batzu kantuz ematen dituena.

Ik. Erlijiozko kanta.

Motibazioa

Edozein jokabide edo ihardunbiderako norbaitek bere baitan duen zioa, helburu jakinen bati begira. Erlijiozko hezieraren eginkizunik nagusienetakoa barne-zio horiek suspertzea eta bideratzea da.

Ik. Erlijioaren psikologia.

Motu propio

Latinezko esakunea, aita santuak Eliza osoari edo elkarteren bati nahiz norbanakoren bati bere kasa eta berak izenpeturik bidaltzen dion gutuna; batzutan, betebeharrereko arauen bat ezar dezake.

Mozorroa

Eraldakuntza adierazteko erabiltzen den aurpegi-estalgarrria. Batzutan norberaren irudia estaltzeko besterik ez da izaten; bestetan, inoren, bereziki izaki traszendenten baten irudia ematen du mozorroak.

Jatorriz erlijiozko edo magiazko zentzua du mozorroak: hori daramanak nolabait ordezkatu egiten du aurkeztua edo irudikatua, erdizka edo osorik horrekin bat eginez. Greziako tragedian oso erabilia zuten mozorroa: horrela, era dramatikoan nolabait irudikatzen zuten *mitoa gertaberritu egiten zuten. Beti ez du, ordea, zentzu magikoa, eta bai sinbolikoa bakarrik. Ik. Magia; Gertaberri-tzapena.

Herri guztietan ezagutu dute mozorroa eta mozorrotzearen ohitura, baina bereziki Afrikan, Ozeanian eta Amerikako indioen kulturetan.

Kristau-herrietan *ihauteriarekin dago loturik bereziki mozorrotzearen ohitura. Bertan, zentzu erritual eta sinbolikoa baino gehiago, eguneroko formalismoaren haustea adierazten du, horretarako mozorroak laguntza ematen bait du. Dena dela, ez dago zalantzarik hor ere mozorroak norberaren nola-

baiteko eraldakuntza adierazten duela, horrek berarekin daraman kutsu magiko misteriozko eta guzti.

Muezzin-a (Muezina)

Musulman-elkarteari otoitzerako biltzera dei egiten diona: bost aldiz egiten du bere lana egunero. *Minaretetik egin ohi du deia, islamismoaren fedeko puntu nagusiak aldarrikatzearekin batera. Bozgorailua erabili hoi dute gaur muezzinek (muezzinek). Minaretetik ezean, *meskitaren ondotik egiten dute deia.

Ik. Islamismoa; Otoitza.

Mufti-a

Islamismoan erlijiozko zuzenbidea interpretatzen duen legelaria. Kasu zailak gertatzen direnean berari egiten diote galderra; zuzenbide musulmanaren arabera erantzun behar du.

Ik. Islamismoa; Legea.

Mugarria

Jabetza pribatuko lurren nahiz herriaren mugak zedatzeko (zedarritzeko) erabiltzen dituzten zutarriak aldaezinak eta sakratuak dira herriaren pentsaeraren arabera. Horregatik sarritan gurutze batez markatu izan dituzte Euskal Herrian herri-mugarriak eta beraietatik bedeinkatzen du apaizak herria. Horiek lekuz aldatzea gaiztakeria handitaz jotzen dute; eta Jainkoak bereziki kastigatzen omen du heriotza ondoren, arima erratu, *argi edo gerixetien inguruko zenbait kon-dairatan agertzen denez.

Ik. Leku sakratua; Sakratua/Profanoa.

Mugimendu ekumenikoa

Ik. Ekumenismoa.

Mundua

Latinetik dator mundua hitza; grezierazko *kosmos hitzaren ordaina da nolabait. Izatea duten guztien multzoa, berorren osotasunean eta batasunean hartuta, da jatorriz mundua.

Jainkoaren *transzendentzia ezagutzean, munduaz haraindakoa da Bera, eta ez da horrekin nahasten; areago, hori Hark ezerezetik sortutzat aitortzean, mundua Jainkoaren *kreazioarekin berdintzen da.

Munduaren osotasunezko eta batasunezko ikuskera ez da betere zabaldua antzinako kulturetan. Israeldarrek *zeru-lurrak esakunea erabiltzen zuten mundua adierazteko, eta horrela igaro da kristau-hizkerara ere. *Liturgiako euskarazko itzulpenean "diren guztiak" esakunea aurki daiteke behin baino

gehiagotan: mezako *Santu goratzarrean, esate baterako, erdarazko *Dios del universo" ("Dieu de l'univers") esakunearen pareko "diren guztien Jainko Jauna" dago emanik euskaraz.

Tradizio handiko hitza da mundua euskaraz. Eta gaur egun, euskal izen jatorrizkoa izan ezik ere, euskal izen jatorra dugu.

Jatorrizko eta oinarritzko adieraz horretatik zuzenean beste bi adierok hartu ditu mundua hitzak euskaraz: a) lurra edo lur-bira; b) gizon-emakume guztiak, batean hartuta.

Zuzeneko adiera horiei beste hainbat erantsi dizkiote hizkera mitologikoak, sinbolikoak, erlijiozkoak eta teologikoak.

Munduaren hiru mailetako banaketa oso zabaldurik zegoen Herri ezberdinetako mitologieta: *Goi-mundua (edo zerutarra), erdiko mundua (edo lurtarra) eta *behe-mundua (edo ifernutarra). Goi-mundua da izaki zertarren bizilekua; behe-mundua, berriz, lurpeko izpirituen eta hildakoen bizilekua da; bien artean dago erdiko mundua: mundutar bizidunena. Goi-munduaren eta behe-munduaren artean ez dago normalean harremanik.

Munduaren irudimenezko deskripzio hori ez da kosmologikoa soilik. Mitologiak gehienetan duen zentzu antropologikoa du, eta giza bizitzaren eta iharduera izpiritularen *sinboloa da hiru mailatako mundua. Goi-mundua egonkortasunaren sinboloa da; mundu "hau" (erdikoa, giza bizitzakoa), berriz, higikortasunaren sinboloa eta gizakiaren proba-lekua da; izpiritualki gorantz egin ahal du, baina, beherantz, behe-mundura erori ere bai.

Adiera sinboliko horretatik dator "mundu hau / beste mundua" edo "oraingo mundua / geroko mundua" kontraposizioa. Oraingo mundu hau da giza bizitzaldikoa; geroko beste mundua, berriz, heriotz ondokoa da.

Itun Berrian, S. Joanen ebanjelioan, mundua hitzak badu adiera berezi-berezirik, kristau-hizkerara igaro dena: hots, Jainkoaren eta Jesukristoren salbamen-asmooaren eta, beraz, gizon-emakumeen *salbamenaren kontra-koari deritza horrela: "Munduak gorrotatzen bazaituzte, jakizue zuek baino lehen gorrotatu ninduela Ni" (15,18); "Izango duzue atsekabe munduan, baina izan bihotz: Nik garaitu dut mundua" (16,33). Baina S. Joanen ebanjelioan bertan, beste batzutan, Jainkoak eginiko izadi ederra edota Berak maite duen eta salbatzen duen gizadia da mundua.

Kristau-izpiritubidean, *monakoaren leku bakarraren (monastegiaren, komentuen) aurkakoa da mundua, eta, beraz, "munduko bizie-

ra" (*laikoarena edo "mundutarrarena") eta "erlijioko biziera" (monakoarena edo "erlijiotarrarena") elkarri kontra-jartzen zaizkio. Horregatik monakoak (fraideak) edo mojak (serorak) "mundua alde batera uzten" dute edota "mundutik aldendu egiten" dira, *monastegira edo "komentura sartzean.

Kristau-teologiak eurrez erabili izan du munduaren kontzeptua. Vatikanoko II. Kontzilioak honetara laburbildu zituen teologiazko adierok (Gaudium et Spes konstituzioa, 2): a) Mundua da giza familia osoa, bere bizinguru dituen izaki guztiekin batera; b) mundua da giza historiaren antzokia edo zelaia, beronen ahalegin, porrot eta garaipenekin; c) mundua da, Jainkoak maitasunez sortu duen eta iraun erazten duen hori, bekatuak bere morrontzapean ipini duena, Kristo gurutziltzatu eta berpiztuak egoera horretatik atera duena, deabruaren boterea hautsi ondoren, Jainkoaren asmoen arabera berritzeko eta burutzapenera eramateko.

Munduaren lau adiera edo, nabari ditugu hor, elkarrekin lotuta bereziki ikuspegi antropologikoaren bitartez: a) Adiera antropologiko-kosmologikoz, Jainkoaren eskuetatik ateratako sorkari guztiak, izadi osoa, gizadiaren zerbitzuan omen dagoena da mundua; b) Adiera antropologiko-historikoz, gizakiak lantzeko bere kargu Jainkoagandik hartu duen eta bere *lanaren bidez gizartzaren duen mundua, kulturarekin nolabait berdintzen dena; c) Adiera antropologiko-soteriologikoz, bekatuaren dagoen eta Jainkoak bere salbamen-ekintzarako hartzen duen mundua, *salbamen-historiaren gertalekua; d) Adiera antropologiko-eskatologikoz, gizon-emakumeen *piztuerarekin batera irudiberriturik gertatuko omen den "mundu berria" da mundua.

Kristau-teologiaren aldetik kosmologia antropologia bihurtzen da, bada: teologiazko antropologia, alegia. Izadia ezin daiteke gizadiarengandik bereiz ikus teologiaren aldetik.

Ik. Kreaizioa; Mundu berria; Antropologia teologikoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Mundu berria

Itun Berriak "lur berria eta Zeru berroa" esakunea erabili du aldi honen buruan munduak izango duen eraldakuntza adierazteko. Fedezko berrikuntza hori aditzera emateko teologikoa "Mundu berria" esakunea erabili ohi du.

Piztueraren ezinbesteko ondorio eta eskakizun gisa agertzen da mundu berria. Natur zientziek gizakiaren eta munduaren arteko